

MIAMI ETA ESKEREA

Jorrail onen zazpigarren egunean DEIA gure egunkarian idaz-lan gogoangarri bat agertu dausku Bizkaia'ri buruz Alberto G. Alonso' k. Or ezarten dot neure oiña, oiñarri orretan, idaz-lan onetako gaiak aztertzeko.

Jakiña da, toki askotan, eta batez be Ameriketan, euskeratik sortuta toki-izen eta abizen asko aurkitzen dirala. Orrek poztu egiten gaitu arako "eman da zabal zazu munduan frutua" gogoratuz.


Toki-izenetan agertzen dana Bizkaia izaten da baiña ez dogu aitzu bear gizaldi batzuk dirala, "bizkaitarra" esaten zala euskalduna esan bear zanean. Zergaitik ori? Ai! Ez dakit! Ez ete da aldi aretan Bizkaia garrantzi aundiko eskualdea izan zalako! Gogoratu Zerbantes'en "caballero vizcaino" Kixoten, edo Javier bera euskerari bizkaera esatean, edo gudari bizkaitar batek Frantzia'ko Frantzisko lenengoa atxillotu ebanean edo Loiola'ko Ignazio'k bere buruari bizkaitarra esaten dautsanean...

Baiña goazen gaur Miami' ra.

Bizkaia ta bizkaitarra nonnai agertzen dira Miami'n: Jauregiak, bidezabalak, etxeak, etorbideak, ondartzatuak, antxiñakoa dan kai bat...

Izena bera askotara agertzen da: Bizkaia, Biskai, Vizcaya, Biskaine, vizkayno, biscaino... jazkera ezbar-diñak dira, baiña Bizkaia beti agertzen da gauza aundiakaz lotuta.

Toki-izenik garrantzitsuena "Cayo vizcaino" da (Key Biskayn, ingelesez) eta onegaz batera zugaztiak, ondartzak, itxas-jolasak, bizilekuen saillak. Emen kokatu ziran Kayo orretako lenengo billatzailleak 1763n.urtean. Orduantxe agertzen da Jeffers'en lur-irudian "Cayo Bizkayno" izena. "Kai" izena bera zabal dabil izkuntzetan, euskeraz be kai, frantzeraz naiz ingleseraz tez, "portua" da. Ortik atera dabe "Cayo".



Miarnin: Bizkaia Jauregia (1914). Museoa.

Bigarren izen aundia Bizkaia Jauregia da. Auxe da inguru aretan dan bizileku girorik ederrenekoa. 1914' an egiña, zugatz eta baratz ederrak eta ondo zain-

duak inguruan dauzala. Ementxe dago Miami'ko erakustetxe edo museorik ederrena. Bizkaia Jauregia izena ezarri eutsoen, "Cayo" aregaz zer ikusi aundia daualako.

Gaur Miami dan tokian bertan bizi ziran inditarren sendi-taldeak, "vizcaynos" izena artu eben. Ori diñosku Cuba'ko Gotzain izan zan Gabriel Calderon'ek andik igaro ondoren.

Ez dogu aitzu bearko Laterri Batuetatik datorren bide zabala. Toki onetara eltzen danean "Biskayne Avenue" izena artzen dau. Garrantzi aundiko bide zabala da au eta urrean dauz goiera aundiko etxediak edo "rascacielos", bat "Biskayne one tower" izenekoa.

Eta gaur be Bizkaia izenak antxe jarraitzen dau. Auzo-une barri bat egin dabe Miramar urian, Brodwar konterrian, eta izena, gaurko idazkera artuz, "Bizkaia" ipiñi dautsoe.



"Biscayne Tower" (Rascacielos).

Ainbeste izen euskaldun agertzearen iturria izen baten aurkitzen da: "Buztinzuri'tar Pedro". Oneri "el vizcayno" esaten eutsoen eta XVI gizaldian eldu zan ara. Ba-dauz an beste izen batzuk be agirietan agertzen diranak: "Perruco" ta "Pedro el vizcayno" esaterako. II Felipe erregeak bialdu eban ara eta Miami ondoko itxas-ertzean ontzia ondatu jakon eta ogei urte igaro bear izan ebazan an, Santa Marta eritxon kaian, eta an itzi eban izen barria "Kay vizcayne". Inditarrakaz artuemon zabalak izan ebazan eta bake-egillea be izan zan inditarrak etorri-barriakaz 50 urtean izan ebezan gudaldietan. Beste euskaldun asko lez, ez egoan españatarrak ziran lur-kentzailleen alde, inditarren alde jokatu eban geiago. Inditarren izkuntzak be ikasi eta gaztelerea baiño obeto erabilten ebazan.

Buztinzuri'tar Pedro'k ondorengoak be itzi ebazan an, inditarren buru zan baten alabeagaz ezkondu ondoren eta guzti oneik gaur be "vizcainos" deritxen sendi zabala osotzen dabe.

Olazar'tar Martin
Eratzaille ta euskeratzaillea